



**UNIBERTSITATEA+ENPRESA+GIZARTEA
HARREMANAREN INPAKTUA *EX POST* EBALUATZEKO
PROIEKTUEN DEIALDIA
(2026)**



SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), bere estatutuetan ezarri legez, *“euskal gizartearen premiei erantzungo die, bai eta historiak eta aldaketa sozio-ekonomiko, politiko eta kulturek ekarritakoei ere”*.

Hala, EHUren helburuak dira honako hauek: *“a) Jakintza sortu, kritikatu eta zabaltzea eta jakintzaren aurrerabidea eta gizartearen garapena sustatzea, ikerketaren bitartez eta ikerketaren emaitzak gizarteratuz”, eta “b) Euskal gizartearen ondare intelektual, humanistiko, kultural eta zientifikoa aberasteko lanetan parte hartzea, baita ekonomia garapenean eta gizartearen ongizatean ere”*.

Euskal Unibertsitate Sistemaren Planak (2023-2026) *“Euskadiko gizartearen aurrerapenaren eta eraldaketaren aldeko unibertsitateen ahaleginak bideratzeko”* indar traktore gisa planteatzen ditu Unibertsitatea+Enpresa eta Unibertsitatea+Gizarte harremanak, *“azken helburua Herrialdearen beharrei erantzutea izanik”*. Era berean, honako ekintza hauek planteatzen ditu, besteak beste: *“Enpresa ingurunearekin (bereziki ETEekin) zerikusia duten unibertsitateko jarduerak RIS3 lehentasun estrategikoetara bideratzea”, “Unibertsitatea+Enpresa+Gizarte harremana sustatzea (Unibertsitateaz kanpoko beste erakunde batzuekin kontratuak sinatuz baliabide ekonomikoak lortzen laguntzea) eta Unibertsitatea+Enpresa ardatzean inpaktu soziala aitortzea eta bultzatzea”*.

Unibertsitatea+Enpresa+Gizarte harremanaren inpaktua ex post ebaluatzeako proiektuen 2026. urteko deialdiaren helburua da inpaktu soziala neurtzea eta ikusgai egitea, horretarako EHUKo ikertaldeek sortutako jakintza (arlo ez akademikoetan) inplementatuz.

Deialdi honetara 100.000€ bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako Unibertsitatea+Enpresa programa kontratuaren bidez esleitutako finantzaketatik. Horrekin lotuta dago, beraz, RIS3 lehentasunekin bat etortzeari dagokion nahitaezko ekimena (*“Unibertsitatea+Enpresa+Gizarte proiektuen deialdia sustatzea”* eta *“Unibertsitatea+Enpresa lankidetzak kontratuak sustatzea, bereziki ETEekin”*).

Adierazitako guztia kontuan hartuta, Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzak erabaki du Unibertsitatea+Enpresa+Gizarte harremanaren inpaktua ex post ebaluatzeako proiektuen deialdia argitaratzea, aurretik Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen oniritzia jasota eta Gobernu Kontseiluan aurkeztuta.

1. oinarria.- DEIALDIAREN ETA PROIEKTUEN XEDEA

Ikerketa deialdi honen xedea da dokumentatzea EHU sortutako jakintzak zertan hobetu duen gure gizartearen ongizatea. Horrek lotura zuzena dauka helburu estrategiko batekin, zehazki, EHUKo ikertaldeek sortutako jakintza (eremu ez akademikoetan) inplementatzeak eragindako inpaktu soziala neurtzearekin eta ikusgai egitearekin. Horretarako, jakintzaren transferentzia sozialaren ex post ebaluazioa egitera bideratu nahi dira ekipoak eta ikertaldeak, horien eta ingurune sozioekonomikoaren arteko interakzioa bultzatzeko eta, horrela, sortutako jakintzaren transferentziak gizartearen ongizatean nola eragin duen identifikatzeko, betiere, diziplinartekotasunean oinarrituta eta masa kritiko handiagoko taldeetan.

2. oinarria.- PROIEKTUEN HELBURUAK

Hauek dira deialdi honen esparruan gauzatuko diren proiektuen helburuak:

1. Identifikatzea gure gizartearen edo haren zati baten ongizatea zuzenean edo zeharka (baina egiaztatzeko moduan) bultzatu duten ekarpenak, EHUKo ikerketa proiektuei lotutako jakintza bildu, sortu edo aplikatzearen ondorioz eginak.

2. Ikertaldeei baliabideak ematea ebidentziak bil ditzaten beren proiektu edo/eta argitalpenetan garatutako jakintza unibertsitatetik kanpo (eremu ez akademikoetan) erabili izanaren inpaktu sozialaren inguruan.
3. Unibertsitatetik kanpoko eragileak inplikatzeari EHUk gizartearen ongizatearen alde egiten duen ekarpena neurtzeko adierazleak identifika ditzaten, eta parte har dezaten EHUren ikerketatik sortutako jakintzaren inpaktu sozial horren neurketan.

3. oinarria.- BALDINTZA OROKORRAK ETA BATERAEZINTASUNAK

Ezin izango dute deialdi honetako laguntzarik eskatu egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- i. Epai irmo bidez dirulaguntza publikoak jasotzeko ezintasuna dutenak.
- ii. Dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak egunean ez dituztenak.
- iii. Ebazpen irmo bidez eta kasuan kasuko legeen arabera, dirulaguntzak jasotzeko ezintasuna dutenak.
- iv. Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen xede diren jarduerak egiten dituzten ikertaldeetako kideek, baldin eta ikertaldeko kideren bat aurretik adierazitako egoeraren batean badago.

4. oinarria.- PROIEKTUEN EZAUGARRIAK

4.1. Proiektuen helburua izango da ebidentziak biltzea EHU egindako ikerketari lotutako jakintzaren inplementazioaren ondoriozko inpaktu sozialaren inguruan.

4.2. Dirulaguntzak ikerketara bideratuko dira, gure unibertsitatearen bost jakintza eremuetan: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, eta Arteak eta Giza Zientziak.

4.3. Ezinbestekoa da proiektuan unibertsitateko ikertalde batek eta kanpoko eragile ekonomiko edo sozial batek gutxienez parte hartzea. EHUk gizartearen ongizatean ekarpena egitea zer den definitzeko lanetan parte hartu beharko du kanpoko erakundeak, eta/edo egindako lanaren inpaktu sozialaren inguruko ebidentzien bilketan, baina ez da beharrezkoa izango inolako ekarpen ekonomikorik egitea.

EHUk zorrozki aztertuko du erakunde ekonomiko edo sozialekin lankidetzan aritzeko aukera, baldin eta horien balore etikoak eta proiektuaren helburua EHUrenekin bat ez badatoz.

4.4. Ezin izango da dirulaguntzarik eskatu inpaktu soziala neurtzeko, baldin eta deialdi hau argitaratzen den datan ebidentzien bilketa dagoeneko egin badago.

4.5. Proiektuek honako hauek barne hartu beharko dituzte:

- a) Inpaktu soziala neurtzeko metodologia argi bat, gaiaren, haren inplementazioaren eta espero diren emaitzen arabera.
- b) Proposamenaren barne hartu behar dira inpaktu sozialari lotuta erabiliko diren adierazleak; eta, adierazle horiek oraindik eduki ezean, horiek ezartzeko erabiliko den metodologia aurkeztu beharko da.
- c) Ebidentziak bildu, laburtu eta aztertzeko plan bat, kanpoko erakundeen parte hartze zuzenaz baliatuko dena.
- d) Aurreikuspenen arabera, proiektua bukatutakoan entregatuko diren gaien xehetasunak, zeinak erabili ahalgo baitira EHU inpaktuaren kultura sustatzeko.
- e) Adierazgarria balitz, datu bilketan eta/edo proiektuaren garapenean genero ikuspegia nola txertatuko den argitzen duen azalpena.
- f) Datuak kudeatzeko plana, indarreko legeriak datuen bilketari buruz ezarritako alderdi etikoak kontuan hartuta.

5. oinarria.- IKERTALDE ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO EZAUGARRIAK

5.1. EHUrekiko loturari dagozkion baldintzak. Ikertaldeek deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte, baldin eta bere kideak EHUKo kolektibo hauetakoren batekoak badira:

- a. EHUKo funtzionario iraunkorrak edo lan kontratudun langile finkoak; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak EHUn; EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; Ikerbasque programako ikertzaileak; irakasle atxikiak edo hala izandakoak eta plana iraunkor baterako akreditazioa dutenak; eta irakasle laguntzaile doktoreak.
- b. Langile ez-iraunkorrak, EHUn Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen bidez kontratatuta daudenak (21. artikuluen bidez –doktorego aurreko kontratuak–, lege bereko 22. artikuluen bidez –Zientzia eta Teknologiaren Espainiako Sistemara sartzeko kontratua–, edo horien aldaketen bidez); eta lan kontratudun bitarteko irakasleak edo ordezkioak, biak ala biak doktoreak eta arduraldi osokoak. Prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kasuan, doktorego tesiaren zuzendaria ere eskaera aurkezten duen taldeko kidea izan beharko da.
- c. Ikerketarako lankide akademikoak, unibertsitateko arautegian zehaztutako prozeduren arabera.

Iraunkorrak ez diren langileen kasuan, aipatutako edozein kolektibotakoak direla ere, EHUREkin duten lotura edo kontratua, gutxien dela, eskatutako dirulaguntzaren exekuzio aldi osoan egon beharko da indarrean.

5.2. Ikertaldearen osaerari dagozkion baldintzak:

- a. Eskaera egiten duen ikertaldean gutxienez hiru doktore egongo dira, denak ere 4.1.a) atalean aipatutako kolektiboren batekoak.
- b. Eskaera koordinatzen duen ikertzaile nagusia 4.1.a) atalean aipatutako kolektiboren batekoa izan beharko da, doktorea eta EHUn arduraldi osokoa (edo antzeko egoeran dagoena). Proiektuaren kudeaketa administratiboa bera EHUKo langilea den ikertzaile nagusiaren unitateak (sailak, institutuak edo parekoak) egingo du.
- c. Ikertaldeek bigarren ikertzaile nagusi bat izan ahalko dute, lehenengoa ez dagoenean hura ordezkatzeko. Bigarren ikertzaile nagusiak ere bete beharko ditu 4.1.a) atalean aipatutako baldintzak.
- d. Ikertzaileak ezin izango dira EHUKo ikertaldeetako kide edo ikertzaile nagusi izan, baldin eta 2025eko deialdian parte hartu badute 5. modalitatean (inpaktu soziala neurtzeko proiektuak) onartutako ikerketa proiektu batean.

5.3. Eskaera bat baino gehiago aldi berean aurkeztea. Ikertaldeko ezein kidek (ezta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte

hartzen badu, horietatik guztietatik kanpo geldituko da berariaz.

5.4. Kanpoko lankideak. Deialdi honetara aurkeztutako eskaeretan, nahitaez adierazi beharko da proiektuan parte hartzen duen kanpoko erakunde edo eragilearen ordezkari bat gutxienez (4.2. oinarria). Komeni da ordezkari horrek goi mailako titulazioa eta proiektuaren gaiaren inguruan esperientzia egiaztatua edukitzea.

6. oinarria.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

5.1. Honako hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Ikertzaileen kontratazioa ordaintzeko. EHUn langileak kontratatzeari buruzko arautegiaren arabera egingo dira kontratazioak.
- b. Material suntsigarria. Proiekturako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada.
- c. Bidaiak eta dietak. Ikerlanaren harira egin beharreko bidaiak, edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifikoetan azaltzeko taldekideek egin beharreko joan-etorriak. Atal honetan sartutako zenbatekoek, baita lau aste arteko egonaldi laburrenek ere, lotura zuzena izan behar dute proiektuaren helburuekin, eta behar bezala justifikatuta eta zenbatespen nahikoaz ageri beharko dira eskaeran. Ikertaldeak landa lana egin behar duenean (inkestak, elkarrizketak, etab.), joan-etorri horien kostua ere bidaien eta dieten atalean sartuko da. Era berean, dirulaguntza honen bidez ordaintzeko modukoak izango dira kongresuetan parte hartetik eratorritako bidaia gastuak eta horietan izena emateko gastuak ere. Gastuen epigrafe honetan sartuko dira 5. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten taldekideak eta proiektuan parte hartzen duen erakundeko kideak.
- d. Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu ez diren kontzeptuei dagozkienak eta egoki justifikatu beharko direnak. Dirulaguntzan sartu ahalko dira proiektuari atxikitako langileen aseguruak (balidin eta EHUn lan egiteko istripu estaldurarik ez badute) eta kanpoko zerbitzuen kontratazioa. Gastuen epigrafe honetan sartuko dira 5. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten taldekideak eta proiektuan parte hartzen duen erakundeko kideak.

6. oinarria.- PROIEKTUEN IRAUPENA ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

6.1. Proiektuen iraupena urtebetekoa edo bi urtekoa izango da.

6.2. Deialdi honi 100.000 euro esleituko zaizkio gehienez. Proiektu bakoitzak 20.000 euro eskatu ahalko ditu, gehienez ere.

7. oinarria.- ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

7.1. Modalitate honetan aurkezten diren eskaerak ebaluatzeako irizpideak honako taula honetan daude zehaztuta:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1. Ebaluatuko den gaiaren garrantzia eta inpaktu soziala. • Proiektua inpaktu sozialaren lau esfera nagusietako batean kokatzea (-Pertsonak, -Oparotasuna, -Planeta, -Bakea, justizia eta identitatea), eta kasu bakoitzean egokiak diren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta egotea, edota ongizate kolektiboa definitu eta lortzeko onartu den beste esparru batekin (proiektuaren proposamenak hala planteatzen badu).	20

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
- EHUn sortutako jakintzaren onuradun den eremu akademikotik kanpoko <i>stakeholder-a</i> edo interes taldea identifikatzea. - Zein inpaktu sozial identifikatu eta/edo lortu nahi den.	
2. Proposamenaren kalitatea eta diseinu zientifiko-teknikoa. Inpaktu sozialaren ebidentziak biltzeko proposatutako metodologia eta lanerako plana. - Erabiliko diren inpaktu sozialeko adierazleen zehaztasun maila eta tipologia. - Adierazleak ezartzeko erabiliko den metodologiaren azalpena, baldin eta oraindik adierazlerik ezarrita ez badago; baita inpaktu sozialaren ebidentziak biltzeko erabiliko den metodologiaren azalpena ere. - Aurreikuspenen arabera, entregatuko diren gaiak.	30
3. Lantaldearen osaera eta esperientzia: - Ikertzaileen Curriculumak. - Ikertaldeak aurretiaz eragin duen inpaktu sozialaren ebidentziak. - Ikertaldea eta lantaldea proposatutako helburuetara eta metodologiara egokitzea.	20
4. Proiektuaren bideragarritasuna eta kanpo erakundearen inplikazioa. - Kanpo erakundearekin komunikazioa eta hausnarketa bideratzeko antolaera. - Kanpo erakundeak duen parte hartzea, bai inpaktu sozialaren adierazleak definitzeko orduan, bai inpaktu sozialaren ebidentziak biltzeko orduan.	30
BALORAZIO OROKORRA	100

7.2. Gainera, emakume ikertzaileak buru dituzten eskaeren kasuan (alde batera utzita ikertzaile nagusi bat edo bi dauden), bi puntu gehituko zaizkio ebaluazioari.

7.3. Finantzaketa lortzeko, nahitaezkoa da 1., 2. eta 4. irizpideen puntuazioen batura **50 puntutik gorakoa** izatea.

7. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

7.1. Proiektuaren ikertzaile nagusiak egin beharko du eskaera.

7.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren 2024ko irailaren 11ko Ebazpenean adierazitakoarekin (EHUko bitarteko elektronikoekin funtzionatzeko eta jarduteko arautegia argitaratzen du erabaki horrek), eskaera EHUko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar da (<https://egoitza.ehu.eus>), hartarako ezarritako epean. Erregistroa egiteko "Inpaktua ex post ebaluatzeako proiektuen deialdia (2026)" adierazi beharko da eskaeran, dagokion atalean. Gainera, zein unitateri zuzenduta dagoen ere adierazi beharko da: "Ikerketa Errektoreordetza – UPV/EHUren Ikerketarako deialdiak (U02000256)".

Izapide hau egiteko, egoitza elektronikoan identifikatu eta sinatzeko eskura dauden bitartekoetako edozein erabili ahal da (BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria [FNMT-CERES]). "Ziurtagiri Digitalak" aukeran, lizenperen hodeiko ziurtagiri profesionala erabiliz sartzeko, beharrezkoa da hodeiko txartel birtual profesionala instalatuta edukitzea eta saioa hastea.

Sinadura bat edo batzuk jaso behar dituzten dokumentu guztietan, sinadura guztiek elektronikoak izan beharko dute beti, eta aitortutako ziurtagiri baten bermea izan beharko dute.

Eskaera aurkeztutzat joko da, baldin eta deialdian eskatzen den dokumentazio guztia bide elektronikoetatik erregistratu bada.

7.3. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskaera egiteko inprimakia
- Jardueren memoria
- Proiektuko ikertzaile nagusiaren Curriculum Vitae laburtua, FECyT formatuaren arabera egina (<https://cvn.fecyt.es/editor/>). Gehieneko luzera: 4 orri.
- Ikertaldeko ikertzaile ez iraunkorrek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, bertan azalduta proiektua indarrean egon bitartean unibertsitatearekiko loturari eutsiko diotela.

Inprimakia eta memoria eskaeraren berezko ataltzat hartuko dira, eta ezin izango dira aldatu, salbu eta Ikerketa Errektoreordetzak hala egiteko eskatzen badu akatsak zuzentzeko izapidean.

Dokumentuak aurkezteko ereduak Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean egongo dira eskuragarri, baita Inpaktu Sozialaren Zuzendaritzaren webgunean ere (<https://www.ehu.eus/eu/web/inpaktu-soziala/dirulaguntza>).

7.4. Laguntzak eskatzeko epea 2026ko maitzaren 5ean hasiko da eta 2026ko maiatzaren 25an amaituko da.

8. oinarria.- LAGUNTZAK KUDEATZEKO ORGANOAK

Deialdi honetan zehaztutako laguntzak Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzak kudeatuko ditu, Inpaktu Sozialaren Zuzendaritzaren bidez.

9. oinarria.- ESKAEREN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA

9.1. Eskaerak aurkezteko epea igarota, Ikerketa Errektoreordetzak zerrendatu eta argitaratuko ditu datu edo baldintza guztiak bete ez dituzten eskaerak, zer alderdi zuzendu behar den zehaztuta. Hamar egun balioduneko epea irekiko da (zerrenda hori argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita), eskatutako dokumentazioa osatu edo zuzentzeko. Epea bukatutakoan, hutsak zuzendu ez dituzten eskatzaileek euren eskaeran atzera egin dutela ulertuko da.

9.2. Eskaeren ebaluazioa fase bakarrean egingo da, eta "ad hoc" eratutako balorazio batzorde bakar batek egingo du. Batzorde hori EHUKo kide hauek osatuko dute: Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak edo hark bere ordezkari izendatutako pertsonak; Ikerketa errektoreordeak edo hark bere ordezkari izendatutako pertsonak; Inpaktu Sozialaren zuzendariak; eta zuzendaritza horrek hautatutako beste bi pertsonak, gehienez.

9.3. Gehienez bost proiektu esleituak zaizkie ikerketaren jakintza arlo bakoitzean puntuaziorik handiena lortu duten proposamenei (horien guztien inpaktu soziala neurtuta), baldin eta 7.3 oinarrian adierazitakoa betetzen badute eta arlo horietan eskaeren % 10 aurkeztu badira gutxienez. Irizpide horiek bete ezean, ebaluazio batzordeak proiektu bat baino gehiago esleitu ahalko du jakintza arlo bakoitzeko. Eskatutako aurrekontuak modalitate honetan ezarritako gehienera (20.000 €) iristen ez badira, balorazio batzordeak aukera izango du proiektu osagarriari finantzaketa emateko, betiere eskuratu duten puntuazioaren arabera eta kreditua agortu arte.

9.4. Eskura dagoen finantzaketa osoa (100.000 €) hautatutako proiektuen artean banatzen ez bada, balorazio batzordeak aukera izango du gainerako zenbatekoa hautatutako proiektuen artean banatzeko, betiere lortutako puntuazioen proportzionaltasuna bermatuta.

9.5. Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratuko direla bermatzeko.

10. oinarria.- EBAZPENA

10.1. Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzak behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, deialdi honetan ezarritako ebaluazio irizpideen arabera eskuratu den puntuazioa kontuan hartuta, dirulaguntza esleitu dakien baloraziorik onena izan duten proiektuei, harik eta aurrekontua agortu arte.

Ebazpen proposamena Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, bertan zehaztuta eskatzaile guztiek eskuratutako behin-behineko puntuazioa.

10.2. Eskatzaileek hamar egun balioduneko epea izango dute, proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, laguntza onartzen dutela edo hari uko egiten diotela adierazteko, edo egoki irizten dituzten alegazioak aurkezteko, eskaerak aurkezteko baliatutako prozedura bera betez.

Alegazioak oinarritzeko, ikertzaile nagusiak bere proiektuaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango du, posta elektroniko bidez, helbide honetara idatzita: convocatoriasupvehu.dgi@ehu.eus.

10.3. Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko ebazpen proposamena onartutzat joko da, eta ulertuko da interesdunak alegatzeko eskubidea galdu duela. Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordeak laguntza hauen emakidari buruz emandako behin betiko ebazpena Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, eta banako ebazpena igorriko zaio eskatzaile bakoitzari.

10.4. Aipatu banakako ebazpenaren kontra berraztertzeako errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz.

Era berean, aipatu ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

11. oinarria.- LAGUNTZA ORDAINTEKO BALDINTZAK

11.1. Esleitutako laguntzak ordaintzeko, deialdiari dagokion ebazpena argitaratu ondoren, bertan proposatutako finantzaketa baldintzak onartzeko dokumentua sinatu beharko du ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak.

12. oinarria.- JARRAIPENA

12.1. Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzak dirulaguntza jaso duten eskaerei jarraipena egiteko prozedura antolatuko du.

12.2. Dirulaguntza jaso duten taldeetako ikertzaile nagusiek konpromisoa hartu beharko dute Inpaktu Sozialaren Zuzendaritzarekin 3 bilera egiteko, EHUn inpaktu soziala neurtzeko eta ikusgai egiteko estrategia diseinatzeko laguntze aldera.

12.3. Amaierako txostena. Behin jarduerak amaituta, eskuratutako emaitzak jasotzen dituen amaierako txostena egin beharko da, hartarako eskuragarri jarriko den inprimaki baten arabera, eta ikertzaile nagusiak sinatu beharko du.

12.4. Modu deszentralizatuan egindako gastuen kasuan, finantzatutako ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiari dagokion sail edo institutuan artxibatuko dira faktura originalak. Faktura horiek eskuragarri egongo dira Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzak, EHUKo Barne Kontroleko Zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztapenen bat egin behar dutenerako, eta hala, deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz beren zereginen baitan eskaturiko edozer informazio eman beharko zaie. Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzeagatik.

12.5. Soil-soilik egotzi ahal izango zaizkio proiektuari laguntzaren indarraldian eginiko gastuak.

13. oinarria.- EMAITZEN ZABALKUNDEA ETA USTIAPENA

13.1. Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), edo sortutako ezagutzak zabaltzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo bestelako zientzia gertakariak), EHUren filiazio instituzionala agertu beharko da, baita erakundearen irudi korporatiboa ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

14. oinarria.- LAGUNTZA EMATEKO BALDINTZAK ALDATZEA

14.1. Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat edo beste aldatuko balitz, betiere deialdiaren helburua bete egin dela ziurtatuta, edota taldeak beste erakunde publiko edo pribaturen baten bestelako laguntzarik jasoko balu, horrek bere garaian laguntzak esleitzeko emandako ebazpena aldatzea ekar lezake, eta, horren bidez, proiektuari esleitutako aurrekontua murriztea edo, hala badagokio, kentzea.

Ebazpena emateko, aldezturik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean araututako administrazio prozedura bideratu beharko da, Inpaktu Sozialaren Zuzendaritzak proposatuta edo txostena egin ondoren, eta berariaz jakinaraziko zaio ikertaldearen ikertzaile nagusiari.

14.2. Ondorio horietarako, ulertuko da laguntza emateko oinarri izandako baldintzak aldatu egin direla, besteak beste, honelako kasuetan:

- a. Ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak proiektua gauzatzeari uko egitea, edo proiektuko ikertzaile nagusia EHUKoa ez den beste erakunde batera lekualdatzea, edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora lekualdatzea, horrekin arriskuan jarrita proiektuaren zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak lortu ahal izatea.
- b. Ikerketa proiektu berbererako beste iturri batzuetatik dirulaguntza jasotzea, edo beste erakunde, entitate edo zentro publiko edo pribatu batzuei ikerketa proiektu beraren aldakiak aurkeztea, behar bezala justifikatu gabe eta finantzaketa eskatzeko xedez, baldin eta aldezturik Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzari horren berri eman ez bazaio.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
- e. Jarduera finantzatzeko deialdian barne ez dauden gastuak egitea, edo EHUK ezarritako kontratazio zentralizatuko prozedurak bete gabe egitea gastuak.

15. oinarria.- IKERKETA PROIEKTUA AURKEZTU DUEN IKERTALDEAREN OSAERA ALDATZEA

15.1. Proiektuaren indarraldian eskaeran aurkeztu diren taldekideak aldatzekotan, behar bezala justifikatu behar da hasierako eskaera egin zen unean aurreikus ezin zitezkeen arrazoi zientifikoak egon direla. Eskaera aurkezteko epemugatik urtebete igaro arte ez da taldean bajarik onartuko, salbu eta tartean ezinbesteko arrazoirik denean.

Eskaera convocatoriasupvehu.dgi@ehu.eus helbidearen bidez aurkeztu beharko da eta Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzara bidaliko zaio, hark ebazpena eman dezan.

16. oinarria.- LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio; besteak beste, dirulaguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko arauak.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoak (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoak) ari direla.

17. oinarria.- DATU ETA IRIZPIDE ETIKOEN BABESA IKERKETA JARDUERETAN

17.1. Europako Parlamentuaren Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrearekin eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorritik, deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira, zeinaren helburua izango baita laguntzen deialdi hau kudeatzea. Fitxategi horren organo arduraduna EHUko Ikerketa Errektoreordetza da. Deialdian parte hartzen dutenek arautegi horrek aitortzen dizkien eskubideak baliatu ahal izango dituzte.

17.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a. Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokioko Adierazpena, 2004).
- b. Indarreko legeria betetzea: 14/2007 Legea, ikerketa biomedikoari buruzkoa; 1716/2009 ED, biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena; Datu Pertsonalak Babesteari buruzko EHUren Arautegia ere bai.
- c. Gizakiekin eta haien Datu nahiz Laginekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordearen (GIEB) alde aurreko eta nahitaezko aldeko txostena aurkeztea, EHUko ikerketarako eta irakaskuntza jarduerarako etika organoak arautzen dituen Erregelamenduak jasotzen duenez (Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2014ko urtarrilaren 30ekoa; 2014ko otsailaren 17ko EHAA, 32. zk.).

19.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ezta, zehazki, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteren epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsoa jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzaren aurrean, 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorrita.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Deialdi hau deialdien webgunean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Donostian, 2026ko maiatzaren 4(e)(a)n.

Marian Iriarte
Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordea
Vicerrectora de Relaciones Institucionales y Cultura